

AZIDO-BASE BALORAZIO BATEAN NOLA AUKERATU ADIERAZLEA?

Neutralizazioa gertatu ondoren (**BALORAZIOAREN BALIOKIDETZA-PUNTUA**) disoluzioaren pH-a gatzaren motaren menpe egongo da (**GATZAREN IOIEN HIDROLISIAREN MENPE**), eta hau kontuan hartzen da adierazlea aukeratzeko. **Adierazlearen pH-biraketak eta baliokidetzaren puntuaren pH-ak ahalik eta hurbilen egon behar dute.**

***BALORAZIOA BUKATUTZAT** hartzen da **adierazleen kolore aldaketa iraunkorra denean** eta puntu honi **AMAIERAKO PUNTUA** deitzen zaio.

*Balorazioa ondo egiteko baliokide puntuak eta amaierako puntuak bat egin behar dute, baina hau zaila denez balorazioa hiru aldiz egiten da eta lehenengoa baztertzen da, orientatiboa delako. Buretaren gastatutako bolumena azken bi balorazioen batz bestekoa izango da.

***Taulan jasotzen dira baliokide puntuaren pH-aren arabera zer adierazle erabil daitekeen.**

AZIDOA	BASEA	ADIERAZLEA	PH BIRAKETA / KOLOREAK		
Sendoa	Sendoa	BROMOTIMOL URDINA	6,0-7,6	Horia	Urdina
			Baliokide-puntuan → pH neutroa =7		
Sendoa	Ahula	METILO-LARANJA	3,1-4,4	Gorria	Horia-laranja
			Baliokide-puntuan → pH azidoa <7		
Ahula	Sendoa	FENOLFTALEINA	8,2-10,0	Kolore gabekoa	Magenta
			Baliokide-puntuan → pH basikoa >7		
Ahula	Ahula	Ez da baloratzen			


BALORAZIO KURBAK

Balorazio bat egitean pH-a astiro aldatzen da, baina baliokidetzaren puntuaren inguruan hori ez da gertatzen, pH-a bat-batean aldatzen delako. Joera hau, beheko, adierazpen grafikoetan ikus daiteke.

Azido sendo baten balorazioa base sendo bat erabiliz

Baliokidetzaren puntuak pH-a 7 denean lortzen da, eratu den gatzak ez duelako hidrolisirik eragiten.


pH-aren jauzia handia denez, adierazle gehienek balio dute balorazio hauentzat. *Bromotimol-urdina* izan daiteke egokia.



Azido ahul baten balorazioa base sendo bat erabiliz

Baliokidetzaren puntuak pH-a 7 baino handiagoa denean gertatzen da, eratu den gatzak hidrolisi azidoa eragiten duelako.

Adierazle gisa *fenolftaleina* erabil daiteke, horren biraketa-tartea (pH-a 8,3tik 10,0raino) baliokidetzaren puntuaren pH-a barneratzen duelako.



Indicador	Color de la forma ácida (HA)	Color de la forma básica (A ⁻)	Intervalo de viraje (pH inferior y superior)
Rojo congo	Azul	Rojo	3,0 - 5,0
Azul de bromofenol	Amarillo	Azul violeta	3,0 - 4,6
Naranja de metilo	Rojo	Amarillo	3,2 - 4,4
Verde de bromocresol	Amarillo	Azul	3,8 - 5,4
Rojo de metilo	Rojo	Amarillo	4,8 - 6,0
Azul de bromotimol	Amarillo	Azul	6,0 - 7,6
Rojo fenol	Amarillo	Rojo	6,6 - 8,0
Rojo cresol	Amarillo	Rojo	7,0 - 8,8
Azul de timol	Amarillo	Azul	8,0 - 9,6
Fenolftaleina	Incoloro	Rosa fucsia	8,2 - 10,0
Amarillo de alizarina	Amarillo	Rojo	10,1 - 12,0